

Ruth Linaza sokatiralariak Euskal Herriko hamasei txapel jantzi ditu

10. orrialdea

Areatzako I. Umorezko Antzerki Erakustaldia zezeilean hasiko da

Hilaren 17an hasiko da umorezko antzerki erakustaldia Maite Guevararen gaztelaniazko *Soltarlo al aire* antzezlanagaz; iluntzeko 20:00etan izango da udaletxeko Areto Nagusian. Martiaren 10ean izango da bigarren emonaldia, hirugarrena apirilaren 14ean eta atzenengoa maiatzaren 12an. **13. orrialdea**



Atutxa II. Urrezko Binakako Aizkolarien Txapelketako finalera

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

290

2018ko zezeilaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Aratusteak argazkietan



Herri gehienetan ospatu dira aratusteak daborduko eta kaleetan era guztietako mozorroak ikusi dira. Diman Abizarie alkarteak Euskal Herriko inauterietako pertsonaje lez joateko eskatu eban; Lemoako ikastetxeko inauteri festan koloreak izan da gaia; eta Zeanurikoan, barriz, Far-West-a.

Eskeintzea zabala izan da Aratusteeetan: besteak beste, lehiaketak, eskoletako mozorro jaiak, bazkariak eta musika emonaldiak antolatuta dabez. Halanda be, oin-dino ez dira jaiak amaitu. Hilaren 17an, Dimako tabernetan kontzertuak egongo dira 19:30ean hasita eta mozorrotuta doanak txupito bat hartu ahal izango dau doban.

BEGITUK han eta hemen batutako argazki batzuk dakar ez diko orrietara. **8. eta 9. orrialdeak**

San Balendin jaia Eleizondon hilaren 18an



San Balendin egunaren osteko domekan, ospatuko da San Balendin Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenez ezetuten dan ermitaaren inguruan. Aurten artea neurtzen daben 60. urtea izango da.

Jaia ospatzeko egitarau apala eta bitxia antolatuta dabe: 11:30ean mezea egongo da Andra Mari parrokian; ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, datorren urtera arte bertan itxeko, eta jarraian ermitaaren aurreko artearen neurketari ekingo deusie. **12. orrialdea**

IGORRE

Lolita Chavez Igorren izango da

Hasikera baten segurtasun arazoakaitik Lolita Chavezen berbaldia bidegrabaketaz egitekoa bazan be, zezeilaren 16an Igorren izango da atzenean Guatemalako hizlaria. *La represión de las defensoras de derechos humanos y la lucha contra las multinacionales en Guatemala* izeneko berbaldia eskeiniko dau Chavezek Kultur Etxean. Guatemaltar andra hau giza eskubideen defendatzailea eta antxinako sendalaria da. Gainera, bizitzaren, luraren, naturearen eta lurraldearen defentsarako kitxe (CPK) herrien konzejuko liderra da. **5. orrialdea**



IGORRE

Zezeilaren 26an ipiniko da martxan Bono-denda kanpaina barrero aurten

Bono-denda kanpaina Igorreko Udalaren 5 euroko laguntzea daukan bonoa da. Hogei euro pagauta, 25 euroko bonoa erosi daiteke Banco Sabadell-en herriko hainbat dendatan gastetako.

Udalaren arabera herriari bizia emoteko behar-beharrezkoak dira denda eta saltoki txikerrak. Txartelen salmentea hilaren 26an hasiko da Igorren errol-datutako bizilagunentzat, eta martiaren 5ean gainerakoentzat. **5. orrialdea**

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARRATIA

Gure Esku Dagoko herrietako lantaldeak 2018ra begira lanean

Gure Esku Dagoko lantaldeak aurtengorako planteauta dagozan erronka nagusiakaz lanean hasita dagoz. Lan ardatz nagusiak herri galdeketa eta Herritarron Ituna dira.

Bestalde, bagilaren 10erako Donostia, Bilbo eta Gasteiz arteko 201,9 kilometroko giza katea antolatuta dau. Horretarako, 100.000 lagun behar dira. Arratiako herriak Zornotza eta Galdakao artean dagozan kilometroak egokitu jakeez. **7. orrialdea**



ARRATIA KOLOREETAN

ARRATIA FUTBOL TALDEA

Gaur egun, Arratia Futbol Taldeak bere momentu onenetako bat dauka kirol ikuspegiak; izan be, gizonen A taldea ondo sailkatuta dago Lurreko Ohorezko Mailan eta B taldea Lurreko Ohorezko Bigarren Mailan, andrazkoen bi talde nagusiak igoteko lehia gogorren dabil, eskola kiroleko gizonen hiru talde R ligan, andrazkoen gaztetuen taldea lidergoa lortzeko burrukan...

Baina Zuzendaritza Batzorde honetako garrantzitsua honakoa da: gura dauanari kirol bat praktikatuko aukera emotea. Gaur egun 23 talde, 372 jokalar, 40 entrenatzaile eta 2 koordinatzaile daukaguz.

Aldi berean, umeak garatuteko hain beharrezkoak diran aldeak

indartuten doguz; esaterako, arauen errespetua, integrazioa, aniztasuna, sexuen arteko aukera berdintasuna, frustrazioaren ikasketea, gainditzearen ahalmena... Hau guztia da beteten gaituena eta, batez be, gero eta jente gehiagorengana heltzean garala ikusteak, azkeneko urteotan, jokalar eta entrenatzaileen kopurua bikoiztu egin dira eta. Horrezaz gain, igaztik bi koordinatzaile eta lan guztia arintzeko lanaldi erdia egiten duan persona bat izatea salto kualitatibo handia izan da.

Klubaren inguruan dagoan giroaz be harro gagoz, batez be, talde desberdinetako gurasean artean sortu diran hartu-emonakaz; "altxor" bat, guztion artean jagon

eta mimatu behar doguna. Taberna, "pub" a hobeto esanda, eta "chill out" gunea atxakia gisa balio deusku eta, jakina, hazten dabilen aurrekontu bateri aurre egiteko beharrezkoa dan diru-sarrerea. Era berean, eskertzekoa da eskeintzen deuskuen laguntzea: delegaduen moduan jarduten, biaketan, aldagelen garbiketan...

Gainera, kirol klub bat garanez, sano harro gagoz be Athletic-egaz hitzarmen barria sinatzeagaitik, andrazkoen futbolerako Athletic Fundazioagaz hitzarmen barritzeagaitik, Lezaman egiten diran probetarako gero eta jokalar gehiago deituta izatearren, baita Euskadiko selekzinora jokalariren bat bidaltzeagaitik be.

Laburbilduz, Arratiagaitik eta Arratiarentzat egiten gabizana, nahiz eta une txarrak be egon, aurreko guztiagaitik konpensean da eta etxotan dogu klubean ez gogozanean gure atzetik datozenak gogo bera eta guk eskeintzen deusguz ahalegina eskeintzea.



Eta, amaitzeko, ohore bat da andrazko taldeak izatea urte batzuetatik hona, horreetako batzuk klub

honetako orrialde onenak idazten dabiz.

Arratia Futbol Taldea

TELEFONO INTERESGARRIAK	Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAR 112
	Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara Zezeilaren 12tik 18ra Badiola. Artea. Herriko Plaza 7 Tel.: 94 631 73 11
	22:00etatik 09:00etara Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
	Zezeilaren 19tik 25era N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1 Tel.: 94 631 30 18
	22:00etatik 09:00etara Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
	Zezeilaren 26tik martiaren 4ra Zamalhoa. Areatza. Askatasun kalea 15 Tel.: 94 673 93 22
	22:00etatik 09:00etara Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano. Zeberioak ez dau guardiarik egiten.
	Urte osoan 22:00etatik 09:00etara Ana Gometza. Francisco Kortabaria 2. Basauri.
	Medikuak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 11 Areatza: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74 Igorre: 94 600 74 63 Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 38 50 14 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 20 79	Udaltxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79	Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15 Gorbeialde 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01 Parketxea 94 673 92 79 Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51 Gorbeialde Irratia 94 631 52 90 Euskotren 902 543 210 Areatzako Notariora 94 673 92 26
--	--	---

Bizkaibus 94 612 55 55 Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdira: 05:15etik 06:45era. Ordu: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.	Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan ordu 07:15etik 22:15era.	Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino. Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.	Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.	Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.	Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta
--	--	--	---	---	---

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu. Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.	Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. * Basauriraino (Ariz) heltzean da. Gaintzeakoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Ugao-Zeberio Lanegun eta zapatuetan: Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40. Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Artea-Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,
--	---	---	---	--	--

16:00. * Igorretik urtetan da bost minutu lehenago. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Ugao-Zeberio-Artea Lanegun eta zapatuetan: Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40. Basauritik (Ariz): 12:45. * Igorreko Instituturaino heltzean dira. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Ermitabarri-Arrigorriaga Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.	Arrigorriaga-Ermitabarri Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
--	---	---	---

La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.	Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30etan urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30etan urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30etan urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.
--	--

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Ane Rilo Gonzalez. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Illart Gumuzio, Alvaro Rabelli eta Jon Urutxurtu.
Maketazino: Iñigo Iruarizaga.
Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).
Tirada: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Afrin

Rojava osatzen daben hiru kantonamentuetako bat da Afrin. Siriako estadian kokatzen dan Kurdistango lurraldea da. Kantonamentuetako bat (Kobane) ospetsu egin zan tamalez estadi islamikoak berau erasotu eta okupau ebanean 2014ko udagoienean. Burruka gogorren ostean YPGk (herriaren babeserako unitateak) 2015eko urte hasieran ISIS bertatik kanporatzea lortu eban. Txikituta gelditu zan dana eta berreraikuntza beharretan dabiz ordutik. Igorreko Udalak Kobane uriko andran etxea konpontzeko diru laguntzea onartu eban 2017 urtean.

Oingo honetan antza historia

errepikatu gura dabe Afringo kantonamentuan, baina ez Estadu Islamikoak, Turkiar estadi faxistak bere talde jihadistien laguntzeagaz baino. Aspalditik Euskal Herriak eta Kurdistanek izan dabez alkartasun kinuak bata bestean eta oingoan be holan izan behar dau. Ozen eta indartsu deitoratu behar dogu Turkiar estadiak dabilan inbasino militar ilegala eta Afrin bakean ixteko aldarria zabaldu beharra dago. Berau izan da eta Siriako gerreak dirauen bitartean egon dan eskualde baketsu bakarra, turkiarrak sartu diran arte "Olibondoaren adarra" izenagaz batailatu daben erasoaldiagaz.

Euskal Herria eta Kurdistan, herri bi, borroka bat.

JON BILBAO

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berriak eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Urratu/urrutu



Personearen narru-azalean egindako zauriari, erpekada bategaitik edo istripuren baten gertatukoagaitik, urratu/urrutu esaten deusagu (urratúe, urrutúe, agoskatuta). Soinekoetan (jantzi, prak) edo oinetakoetan be (zapatak edo...) gertatzen dira urratuak. Aditza be bardin esaten dogu; adibidez: "Mendian galdu eta sasi artean sartu ginan eta, konturatu orduko, besoak eta bernak urratu egin genduzan".

ERETXIA

Dominu-efektua Europako futboleant

Passu barri dan neguko merkaduak futbolaren barruan bogan dagoan tendentzia berretsi dau. Talderik poderetsuenak, kirol jardueran oinarritzen diran enpresa transnacionalak izanda, inbersino handiak egin dabez euren lantaldeak indartzeko.

Udan, PSG-k Neymar fitxau ostean, Bartzelonak Dembelé sinatu eban eta oin Coutinho eta Yerri Mina gehitu ditu. Liverpoollek Van Dijk kontrata dau 85 milioi euroren truke, historiako atzelarik garestiena bilakatuz. Eta ez, ez gara Maldini, Beckenbauer edo Baresiri buruz ari. Van Dijk oso ona da baina seguruena ez litzateke munduko 10 atzelari onenen zerrendan azalduko.

Olatua Euskal Herrira iritsi da, Txiki Begiristain kirol zuzendari lez eta Pep Guardiola entrenatzaile karguan daukan Manchester Cityk Aymeric Laporteren etete klausulea ordaindu dau. Agen-eko atzelariak 65 milioi itxi ebazan lbaiganen. Pezetetan berba egin ezker, kasik 11.000 milioi. Bere garaian, Bartzelonak Ronaldo brasildarragaitik ordaindutakoaren laukotxa. Egoerearen aurrean, zuri-gorriek Iñigo Martinez fitxau eban 32 milioi euroren truke. Eta egoereak haserre handia eragin dau Realaren inguruan. Dominu-efektua euskal futbolera heldu da eta fitxaje honek ez dira adierazle bakarrik. Izan be, aurretik, Athletic-ek Kepa Arrizabalaga edo Iñaki Williams-en kontratuak luzatu ditu, Ligako talderik indartsuenek bakarrik ordaindu leikiezan soldatakaz.

Horrek holan, errez esan geinke Europako futbolaren egungo parametroak AEBko kirolean mobidu izan diran zifretara gerturatzen dabizala. Hori bai, NBA edo NFL moduko txapelketek dabez neurri edo faktore zuzentzailerik barik. Emirerrietatik, Errusiatik, Txinatik edo AEBtik eto-



BEÑAT ZARRABEITIA

Kazetaria

rritako ugazabek Europako bost txapelketa nagusietako hainbat talde salerosi dabez. Euren diru iturriak ez dagoz futboleant oinarrituta, baina berdegunean islatzen dira.

Abiadura desbardineta txapelketak ikusten gabiz eta datorrena ez da askoz hobe izango. Telebista edo ikus-entzunezkoen eskubideetatik eratorritako diru-sarrerak handitzen joango dira, negozio eredu barriari ateak zabalduz. Ingalaterrako Ligeari jagokonez, baliteke Amazon bezalako plataformak edo Facebook bera be eskubideen aldeko lehian sartzea. Ondorioz, konsumo ereduak aldatzeaz gain, 10-15 bat talderen posizionamentua indartuko dau, horreen baliabide ekonomikoak biderkatuz. Espainiako Ligak Saudi Arabiako federazioagaz sinatutako akordioa horren lekuko dogu.

Agertoki eta perspektiba honeen aurrean, zelango aukerak dabez bestelango taldeak? Euren nortasuna indartzea, harrobia lantzea eta euren komunitate trinkotzea. Hori da, besteak beste, Athletic-ek egin beharko leukeena. Klubaren indarguneak hauspotu eta proiektu propio bat garatzea. Esan barik doa, tarteka, merkaduari erreparatu beharko deusala, baina abiapuntua Lezaman egon beharko litzateke.

Ernesto Valverde aitzen dauan moduan, "guk abantaila bat daukagu, gu Athletic gara". Aurrera begira be holan izaten jarraitu beharko leuke. Izan be, zer hobeto munduko agertokian Igorre, Laudio, Tolosa, Faltzes edo Ziburuko jokalaria lehiatzea baino. Norbere apustua zaintzeak zaletuak zaintzea dakar. Izan be, zaletu barik, belaunaldi belaunaldi egiten dan transmisino barik, futbola kapitalismo basatiaren ikur soil bilakatzen da.

Horren aurrean, emozioak partekatu, loturak indartu eta istorio kontrakulturalak kontetako aukerea be badago. Horrek ez dau dominu-efektua geldiarazoko, baina leuntzen laguntzeaz gain, arnagune batzuk ekarriko ditu, baita futboleant be.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatzen
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



URTZI BARRENETXEA

Beranduegi

1 912ko apirilaren 13a jaiotzearen dala Ozeano Atlantikoko iparralde hotz, ilun eta lasaian, William Murdoch ofizialak argi ikusten dau RMS Titanic itsasontzia urpera doala. Iceberga begi bistan dauko, baina itsasontziaren abiadura eta masa ezetuta, ikuspegi sistemiko batetik aztertu ezker, badaki ezinezkoa dala kolpea saihestea. Maniobra estandarra saiatu arren (dana istriborrera eta makinak geratu hasikeran; gero, guztiz aldatu ababorrera), inertziak ez dau lorik egiten, lege fisiko guztiak lez. Murdoch jakitun da industria modernoaren barritasun guztiak gauzeztanak dirala oin; ezinezkoa dala hau geratzea. Halan ba, ingenieritzaren azken asmakuntzakaz eraikitako giza harrotasunaren eredu, gerake, urpera joango da. Denpora kontua baino ez da.

Eta oin zer egin? Edward Smith kapitaina esnarazo dabe daborduko. Tripulazinoen arduradunek

osaturako krisi kabineteak galdera larri bateri erantzun behar deuto; forma aldetik, matematika kontu hutsa baino ez bada be: 2.223 persona doaz ontzian eta 1.178rentzako salbamentu-txalupak baino ez dagoz.

Bi aukera nagusi dituez mahai gainean: pribilegiadu batzuei emon salbetako aukerea ala danok aurrera urtetako halamoduzko txalupa deserosoagoak berregin? Ez dago ia astirik. Ointxe bertan aginte-gelan dagozan personak ontziko populazinoaren %1a baino ez dira, baina euren eskuetan dago bertako guztien etorkizuna.

"Ta zelan kudeatu hau?" dino kapitain esnatu barriak. Itsasoaren isiltasunaren eta Southamptoneko portuko oihu eta festa-algaren arteko alde etorri jako gomutara erantzun lez. Gauak, noski, ez deuto ezelango jaramonik egiten halango huskeria bateri; Munduak bardin segiduko dau unibersoko bere bidean.

Bitartean, Titanicaren barruskietako makinetan dagozan langileak be badakie zer jatorkien gainera, egin ahalean dabizalako maniobra antzuetan. Esan daigun honeek be ontziko populazinoaren beste %1 dirala. Langile honeen zalantza beste bat da: zelan itzartu ezer asmetan ez dauan eta ezjakintasun-lo gozoan dagoan gainontzeko %98 hori danontzako urtenbide bat topau ahal izateko. Ez da izango erreza: jai-musika eta edalontzien anabakea ez da geratu, oindinokarren.

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

A gertu zara ez zaitut deitu baina bihotz honetako taupada itzalak ekarri zaitu ez zara ongi etorria ordea aditu duzu, ametsen ispiluko zati bakoitzaren talka aitortu ezin diren egien hiritik zatorz bidean, ezerezaren lorratz hutsak utzirik

Begiratu diezu etorkizunaren adaxka biluziei goibeltasunaren minari etsita antzeman duzu itxaropenaren kirats ustela atsekabearen uretan itota

Hain gutxi dakit zutaz

Etorri zara besarkatu duzu nire azal ximela eta haizearen kontra dantzan, erori da lurrera laztandu duzu nire gogoa eta damuaren errautsetan desegin da etsipenaren ezpain mingotsekin eman didazu musu eta nahigabeaz pozoitu duzu nire irribarrea

Oharkabean kategitu nauzu hain gutxi dakit zutaz hain benetakoa da nire gorrotoa sumindura horrek beharbada burua argituko dit edo isilik, gorderik, alboan geldituko zara hain gutxi dakit zutaz...

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Tejidos Alonso moduko dendatxoak izan leiteke, edo antzeko beste bat, bardin deust. Egia esan Areatzako horrek abantaila handia dauka niretzat. Izan be, kamino nagusian dago, eskoialdean Kokoland kibutz-era bazoaz. Handik bazatoz, ezker aldean. Zeuk aukeratu. Bada, ez txantxa, aldamenetik pasetan nazan guztietan begiak hara, bere bentanako erakusleihora, desbideratuten jataz, halabeharrez desbideratu be. Ia obsesino bilakatu jat, gaueroko bourbona lez, edo Penthouse aldizkari zaharreko "Wanda la perversa" komikia moduan. Eta ez da izango dituan salgaien artean benetan zer edo zer interesetan jatalako, ez. Benetan behin eta barriro haritzen nauana da oindino eusten deustan antigualeko itxura, darion "karlismo" jator hori, gure gaurko sasoiaren arabera anakronismoa ezin ederragoa. Karlismoa? Lasai, irakurle, ez naz eta orain On Karloseri gorazarrerik egiten hasiko, ez. Ha, nire aspaldiko lankide bateri ostu neutsan. "Goazen, hamen badago taberna karlista bat, goazen zeozer hartzean" inostan, edota "hara joateko, goiazan ba bide karlistetan zehar" bestea. Horrelan bada, ikasi neban zer zan "karlistea" izatea. Larregizko modernidadeak ekarritako ustezko ontasun eta erosotasunai bizkar egin, eta lehengo gauza onez gozatzea litzateke. Horixe, horregaitik gustetan jataz gaueko antrorik ilunenak, tabernazulorik lohienak. Horreek be karlistak ete? Eta ez hori bakarrik, lokomotora zaharren olio usaina be gustetan jat, portu zaharrak, inora ailegetako biderik luzeen eta malkartsuenak, eta batez be, gorputza bakarrik betuleez estaltzen dozunean gustetan jat. Eta, halangoetan, gogoa Karidadeko Benta taldearen *Hau da lehengo munduaren azkena* kantuaren berbetan murgiltzen jat, edo Piztiak taldeko *Txomin Uriberen lehengo portu zaharretan bainetan naz*. Eta holan, poetikea eta politikea ezin bereiztuz, jakin dot Jotakie taldeak Andoaingo gaztetxean kontzertua eskeiniko dauka. Hori bai zan modernidadea! *Gaueko iluntatien beldurra ematen du...*

Alvaro Rabelli



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zurbite 101
R.P.S. 21/06

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 000-480839000-000200717

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARANTZAZU

Aldaketa gitxi aurrekontuan



Arantzazuko alkatea eta zinegotziak plenoan.

Erredakzioa

Arantzazuko Udaleko aurtengo aurrekontua 469.176 eurokoa izango da, zezeilaren 6an onartu zan-eta EH Bilduren aldeko lau botoakaz eta EAJ-PNVren kontrako biakaz.

Aurrekontuetako diru-sarrerea, batez be, Bizkaiko Foru Aldundiaren Udalkutxaren ekarpenetik dator, aurten 337.166 euro bideratu ditu-eta Udalera. Horrez gain, Udalak 53.740 euro jasoten ditu zergakaitik.

Gastuen atalari jagokonez, partida handiena Arantzazu-Igorre

bidea urbanizetako zuzenduko da, 24.000 euro, hain zuzen be. Herriko kaskoan aurten be argien aldaketak egiteari ekingo deusie, horretarako Udalak 3.000 euroko partidea dauka. Halanda be, "efizientzia energetikoa hobetzeko diru-laguntzea dagoala" gogoratu gura izan dau Igor Menika alkateak.

Bestetik, jaietarako diru bera eukiko dabe aurten arantzazutarrak, 18.000 euro hain zuzen be. Euskerea eta bardintasunerako partidak, barriz, aurten be 2.000 euroko kopurua izango dau bako- txak.

ZEANURI

Hainbat proposamen herriko plazea aldatuteko

Erredakzioa

Zeanuriko Udalak herriko plazea berdiseinatu gura dau eta inbersino hori aurrera erroteko aurtengo aurrekontuko partida bat aurreikusit dau. Horrez gain, Udalak batzar batzuk egin ditu herritarrak proiektuaren nondik norakoak azaltzeko eta, bide batez, herritarren partetik, iradokizunak jasoteko.

Lehenengo batzar biak zezeilaren 7an eta 9an egin ziran eta honeexek izan ziran bertan aurkeztutako proposamenak: plazan dagoan frontoia eta umeen jokoak dagozan txokoa tapetea ala ez; etxeetako aterpetako hormak

loreontziakaz eta "mailaz" babestutea, umeak baloiagaz jolasten diranerako; plazaren perimetra zarratzea landare eta banku batzuek, holan, plazan autoen erabilera ekiditeko; eta azkenik, plazan dagozan aparkalekuak mugatzea eta autoen ibilbideak kontrolatea piboteakaz.

Eusebio Larrazabal alkateak di-noanez "batzar batzuk beharko dira proiektua guztiz zehazteko eta zehaztasun guztiak ebazteko". Herritarrak iradokizunak eta eretxiak bidaltzeko martiaren erdira arte daukie, batzarretan jarritako urnetan idazkiak sartuz edo udaletxera joanez eta bertan aurkeztuz.



IGORRE

Lolita Chavezen berbaldia Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

La represión de las defensoras de derechos humanos y la lucha contra las multinacionales en Guatemala izeneko Lolita Chavezen berbaldia zezeilaren 16an 19:00etan Igorreko Kultur Etxean izango da, segurtasun arazoak dirala eta berbaldia bidegrabaketa bidez egingo zala zabaldu bazan be, atzenean Chavez bertan izango da. Guatemalako indigenen eskubideen aldeko hizlariak atentadu eta hil-mehatxuakatik iges egin behar izan eban bere herrialdeetik. Hori dala eta, hainbat hilabete daroaz Euskal Herrian giza eskubideen defensoarako beste programa batean.

Chavezek Guatemalan hainbat mehatxu eta eraso izan zituan. Horreetako azkena bagilaren 7an izan zan meategi baten kontrako ekinaldi batetik etorrela; izan be,

gizon talde armau bat bera hiltzen saiatu zan eta Chavezek mendira iges egin eban. Ostenduta egon da oin arte, baina oin helburu dauka European ezagutarazotea bere herriko egoerari aurre egitearren kitxe herria egiten dabilan burrukea.

Noka Talde Feminista, Igitie

eta Ongi Etorri Errefuxiatuak Arratia alkarteak antolatu dabe berbaldia.

Guatemaltar andra hau giza eskubideen defendatzailea eta antxinako sendalaria da. Gainera, bizitzaren, lurraren, naturearen eta lurraldearen defentsarako kitxe (CPK) herrien konzejuko liderra da. Euro-kamarako Sajarov sari-rako hautatua be izan zan, herri indigenaren eskubide kolektiboak babestu eta bultzatzeagaitik. Urtailaren 30ean, barbarako, kooperazioaren Ignacio Ellakuria saria jaso eban.



IGORRE

Bono-denda kanpaina hilaren 26an hasiko da

Erredakzioa

Igorreko Udalak eta Arratiako Merkatarien Elkartek (AME) Bono-denda kanpaina ipiniko dabe martxan barrero aurten. Bono-denda Udalaren 5 euroko diru-laguntzea daukan bonoa da. Hoge euro pagauta, 25 euroko bonoa erosi daiteke Banco Sabadell-en herriko hainbat dendatan gastetako. Sinatutako akordioaren arabera, Udalak sei mila euroko inbersinoa egingo dau, horreetatik bost mila zuzenean herritarrak jasoko daben diru-laguntzak ordaintzeko izango dira eta beste

mila sustapen gastuetarako: bonoak, kartelak, diseinua...

Udalaren arabera, herriari bizia emoteko behar-beharrezkoak dira denda eta saltoki txikerrak eta horreek bultzatzeko eta igorretarrai beharrezko dituen produktuak eskuratzen lagunduteko



Igazko kanpainako bonoa.

ipini dabe martxan kanpaina.

Txartelen salmentea hilaren 26an hasiko da Igorren erroldatutako bizilagunentzat, eta martiaren 5ean gainerako interesdunentzat. NA bakotzeko hiru txartel eskuratu daitezke gehienez.

Berrogeta bederatz saltoki dira alkarteko kide, eta kanpaina parte hartzean daben saltokietan hori adierazoten dauan bereizgarri bat egongo da. AME Igorreko merkataria alkatea da, eta merkataritza eta zerbitzuak bultzatzea dauka helburu.

DIMA

Igitieko azokea hilaren 18an

Erredakzioa

Igitie Arratiako baserriar agroekologikoen alkarteak azokea antolatu dau hilaren 18rako Diman 11:30etik 14:30era. Gainera, azoka bitartean, Titi ta Loloren eskutik txapa tailerra izango da eta Jakoba Errekondo konbidau dabe *Landareak lantzen*

urte osoko gida-liburua aurkezteko.

Liburuan, Jakoba Errekondok azaltzen dau baratzean, fruta-arboletan, lorategietan, basoan noz ze lan egin, erein, landatu, inausi, tratau, uztak jaso, txertatu...; hau da, urte garairen arabera egin behar dan lan bakotxa.

Antton Olariagaren irudiakaz

jantzita dago lana. 2018an gure denporea plazerez eta ganoraz antolatzeko tresna da aldi berean liburu eta aldi berean agendea dan hau.



UBIDE

Udalaren etxea
alokairuan

Erredakzioa

Jon Deuna kaleko laugarren zenbakiko lehenengo solairuan Ubideko Udalak daukan etxebizitza kontratu bidez alokatu gura dau.

Udaletxean bertan dagoan etxeak erabilgari daukan espazioa 89 metro karratukoa da. Sano egoera onean dago eta 6 gela ditu. Kontratuaren epea 3 urtez luzatzeko asmoa dago.

Eskaria egiteko azken eguna zezeilaren 28a izango da. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua, gitxienez, 350 euro hileko gehi BEZa izango da. Interesdunak informazio guztia jaso leikie Ubideko Udaleko bulegoetan. Bestela, www.ubidekoudala.net webgunean kontratatzaile profila atalean jaso leikie.



ZEANURI

Ibarreta frontoiko
taberna-jatetxea
alokagai

Erredakzioa

Zeanuriko Udalak Ibarreta frontoiko taberna-jatetxearen ustiapenaren lizitazioa atera dau. Kontratuaren epea 4 urtez luzatzeko asmoa dauka Udalak.

Eskaria egiteko azken eguna zezeilaren 28a izango da. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua urteko 3.000 eurokoa, gehi BEZa, izango da. Interesdunak informazio guztia jaso leikie Zeanuriko Udaleko bulegoetan. Bestela, www.zeanuri.eus webgunean al-bisteak atalean jaso leikie.

ARRATIA

Banda zabala sareak zabalduko dira

Erredakzioa

Europako direktiba baten aginduz 2020. urterako ahalik eta biztanle-gune gehienek erabilgarri izan beharko dabe banda zabala sarea. Hori dala eta, Arratian be neurriak hartzean hasi dira.

Kontuan izan behar da banda zabala sarearen zabalkundea asko aldatuten dala herri batetik bestera. Gainera, herrien antolamentuak zabalkuntza hori zaildu egiten dau, hau da, herrigune eta auzoen banaketak. Arratian hiru egoera sano desbardin emoten dira, eta Ubide, Lemoa eta Zeanuri izan leitekez egoera horreen adibide.

Telefonica telefonia-operadoreak Euskadiko biztanle-guneetan banda zabaleko sareak hedatuteko diru-laguntzen adjudikazioa lortu eban. Enpresa horrek 18 hilabete inguru izango ditu Ubide herriko San Juan eta Magdalena auzoetan banda zabala sareak zabaltzeko. Holan, herri osoa gitxienez 100 Mb/s-ko abiadureagaz konektatuta egongo da.

Lemoan bi egoera desbardin dagoz: batetik, auzo batzuetan banda zabaleko sareak dabarduko badagoz edo hiru urteren buruan izango dira, Espainiako ministerioaren arabera. Halanda be, "gaur egun ez dakigu banda zabala zerbitzua emoten

dan ala ez, operadoreek banda zabaldut daben ala ez, eta horregaitik Eusko Jurlaritzak zalantzak argitu gura ditu" dino Bingen Larizgoitiak, Gorbeialdeko arduradunak; bestetik, Lemoako beste auzo batzuetan, Ubiden moduan, 18 hilabetean aurrekusi da proiektua amaituta egotea.

Hainbat herritan egoera oindino konplikatua da, Zeanurin esaterako. Izan be, plazan banda zabala sarea ipiniko dan arren, auzo batzuetan epe laburrean zerbitzua eskuragarri ipintea aurrekusi barik egoan. Dana dala, "sarea zabaltzea aurrekusi ez egoan lekuai klasifikazioak aldatuz, lor daikegu egoera aldatzea" gaineratu dau Gorbeialdeko arduradunak. Kasu horreetarako Eusko Jurlaritzak 2018rako diru-laguntza batzuk aurrekusi ditu.



IGORRE

BATZ Energy-ren jarduera
profesionalari ON Bizkaia saria

Erredakzioa

BATZ Energy-k spin-off baten ibilbideari 2018 ON Bizkaia saria jaso eban BECen zezeilaren 5ean egin zan zazpigarren Bizkaia Enpresa topaketan. Beaz-ek urtero emoten dituan On Bizkaia Enpresa sariak Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak goraitzen dabez jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzean egindako ekarpenagaitik.

Sariak emon ebezanak izan ziran Unai Rementeria, Ahaldun Nagusia; Imanol Pradales, Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputadu forala; eta Ainara Basurko, Beaz-eko zuzendaria. ON Bizkaia sarietan sail bi aitortzen dabez,

enpresa proiektua eta ibilbidea, gutzira zazpi sari banatuz.

BATZ Energy 2005ean eratu zan BATZ-en dibersifikazio estrategiaren ondorioz. BATZ Energy-ren jarduera nagusia eguzki-zelaiaren muntaketarako sistema estrukturalen diseinu eta garapenera zuzentzen da, masako ekoizpen eta CSP zein PV teknologia erabilten dabenak.

Hasikeratik, BATZ Energy-k erroka barriak hartu izan ditu masako ekoizpen eta *open innovation* ereduaren izandako esperientziari esker. Esperientzia horrek esan gura dau BATZ Energy, izaera globalagaz batera, energia barriztagarrien alorrean mundu mailako soluzioaren homitzailea dala.



DIMA

Zabalik dago
oindino aguazil
plazarako
izena emoteko
epea

Erredakzioa

Dimako Udalak deialdia egin dau herriko aguazil plaza beteteko. Lanpostua Zerbitzu Berezien Azpieskalan dago eta oposizio-lehiaketa askearen bidez egingo da aukeraketa. Gainera, Udalak azterketak gaintzen dabezanak lan boltsea osatu gura dau.

Aurkezten diranak bete beharreko betekizunetako batzuk honeexek dira: eskolaratze egiaztagiria edo baliokidea eukitea edo hori lortzeako aukerea eukitea; 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatuta izatea; eta azkenik, ibilgailu ofiziala gidatzeko gidabaimena izatea. Hiru betekizun horreek eskabideak aurkezteko epea amaitzen dan egunean egon behar dira indarrean. Zezeilaren 27ra arte emon daiteke izena eta informazio gehiago gura izan ezke-ro www.dima.eus webgunean dago eskuragarri.

ARRATIA

Enpresa
Foroaren
bigarren saioa
egin da


Erredakzioa

Arratiako Enpresa Foroaren bigarren saioa egin zan Igorreko Kultur Etxean zezeilaren 2an. Bertaratutako enpresak honeek izan ziran: Soka vertical, Quick Rent, Alfe Cutting, Comecaran, Industrias Bai, Ormazabal, Batz Energy, Batz S. Koop., Hierros Sancho eta Ilunbe. Enpresa honez gain Zulaibar Lanbide Ikastegiak, Beazek eta Errota Fundazioak hartu eban parte.

Arratiako garapen sozioekonomikoa helburu, hurbildu ziran

enpresak euren aurkezpena egiteko aukerea euki eban, euren arteko ezagutzan sakontzeko asmoz eta alkarlanean aritzeko helburuagaz. Honez gain, Beazeko ordezkariak, enpresai zuzendutako euren zerbitzu eta programak zeintzuk diran azaldu eban.

Lehenengo Foroan enpresak mahai gainean jarritako beharri-zanai erantzuna emoteko, Errota Fundazioak aurrera eroan gura dituan lan ildoak azaldu eban.



ARRATIA

Arratia kantuz zezeilaren 16an Igorren

Erredakzioa

Igaz, hainbat herritan batu ziran Arratiako kantuzaleak, kantu biran ibilteko, besteak beste, Areatzan, Diman, Igorren, Artean, Zeanurin eta Bedian. "Giro polita sortu zan eta aurten nahiz eta apur bat beranduago hasi, barrero martxan gagoz" dinoe arduradunak.

Hilean behin, herri baten topaketea antolatu gura dabe eta 2018ko egutegia eginda daukie.

Arratia kantuz-en lehenengo topaketea Igorren izango da zezeilaren 16an, arrastiko 20:00etan, EinGo Kantu eta Dantzan musika taldeak lagunduta. Martiaren 16an, 10:00etan Zeanurin alkartuko dira eta Zeanuriko txistulariakaz batera kantu biran ibiliko dira.

Atzena, maiatzaren 18an, 19:00etan Areatzan izango da eta plazan bilduko dira Arratiako Kantu Bat Gara musika taldeagaz.

"Arratia kantuz-etik Arratiar guztiak animau gura doguz aurtengo kantu biratan parte hartzeako"

dino Sara Gutierrezek, Arratia kantuzeko partaideak. Gainera, Gutierrezek gogoratu gura dau Arratia kantuz-en helburua zein

dan "euskar kanta tradizionalak berreskuratzea, euskerearen erabilera bultzatzea eta lagun artean kantetan ondo pasetea".



IGORRE

Hirigintza Plan orokorra osatzeko erispideen dokumentua onartu da



Igorreko planoak.

Erredakzioa

Hurrengo zortzi urteetarako Igorreko Udaleko Hirigintza sailaren lehentasunak markauko dituan dokumentua onartu da. Plan honek, industrialdeak zelaz hobetu, zenbat etxebizitza egin eta ze landa eremu babestu behar dan, besteak beste, zehaztuko dau.

Etxebizitza kopurua

Herriko hainbat eremu hobetzea da plan orokorragaz lortu gura dana. Eregiko diran etxebizitza eremu barriak bota edo ordezkatu egingo ditue, errekatik gertuegi, bidetik hurregi edo kalean norabideakaz bat egiten ez daben eraikinak. "Hainbat hobekuntza ekarriko ditu auzoetan be. San juaen erreka

ondoan dagoan etxea barbarako, lehen ordenazinoz kanpo egoana, barrero ordenazino barruan egotea lortu da" dino Beinat Anzola alkateak. Holan, etxe batzuk konpondu egingo dira eta beste batzuk bota, barriak egin ahal izateko.

Eskola ondoan be aurreikusten dira aldaketak: sistema orokor moduan zehaztu da, lurak eskratu eta, honetara, aparkalekuak edota eskolearen balizko anpliazino bat egiteko.

Agarreko auzoan be, aurreikusten da etxebizitzak egiteko aukerea. Nahiz eta, "han eraikinak egin baino lehen, badagoz lehenago bete beharreko lekuak" dino Anzolak.

Industrialdeak

Gaur egungo legediagaz, Udalak sano gatz dauka industriaguneak zabaltzea. Baina egungo gune industrial batzuk eraberritzea aurreikusten da plan honetan: Bacaladera, Negarra edo Tarabusiko guneak, besteak beste. Industria guneak zabaldu ez, baina aurrera doaz industrialdearen ondoan aparkalekuak egiteko asmoak, batez be kamioentzat. Enpresa batzuk itxitako eremuak be berbiztu gura ditue, esaterako lehen Maderas Iruarizaga enpresek erabilten eban lekua ez urbanizable izaten segitan dau, "baina saiatu gara enpresa barri batzuk erakarten. Horretarako, arau batzuk aldatu doguz, bertan lehen egon ezin ziran enpresak, edo antzekoak, etorri ahal izateko" dino alkateak.

ARRATIA

Gure Esku Dago beharrean

Arratiako Gure Esku Dagoko lantaldeak zezeilaren 1ean batu ziran 2018rako planteautu dagozan erronka nagusiakaz lanean hasteko. Lan ardatz nagusiak herri galdeketak eta Herritarren Ituna dira.

Erredakzioa

Herri galdeketak jagokonez, daborduko, Diman, Zeanurin eta Areatzan egin dira eta aurten Igorren egingo da galdeketea maiatzaren 6an.

Herritarren Itunari jagokonez ostera, itun horretan gizarteko sektore eta eragile guztien erabakitzeko eskubidearen aldeko arrazoiak batuko dira. Horretarako, herrietan mahai-inguruak antolatuko dira gai desbardinaren inguruan. "Itun horrek esparru bat eskeini gura dau berba egiteko, konplizidadeak josteko eta adostasunak ehuntzeko, erabakitzeko ariketak behar dituan jarrerak, adostasunak eta tresnak alkarregaz lantzeako" dinoe.

Giza katea

Bagilaren 10erako Gure Esku Dagok 201,9 kilometroko giza katea antolatu dau, Donostian

hasi, Bilbotik pasau eta Gasteizko Legebiltzarrean amaituko dana. Horretarako, 100.000 lagun behar dira. Arratiako herriak Zornotza eta Galdakao artean dagozan kilometroak egokitu jakeez. "Erronka handia suposatzen dau, oin arte egin dan giza katerik handiena izango da eta herritarrek parte hartzea deitzen doguz" dinoe Gure Esku Dagokoak. Datozan aste eta hileetan herrietan giza katearen aurkezpenak egingo dira eta parte hartzeako saretze kanpaina be martxan ipiniko da.

Filma eta berbaldea Areatzan
Elkarrekin-Together pelikula-dokumentala hilaren 23an ikusi ahal izango da arrastiko 19:00etan Areatzako Udal Aretoan. Pelikulean ostean barriekaldia egongo da protagonistakaz.



DIMA

Txakolin Eguna Axpe Goikoa jatetxean martiaren 17an

Erredakzioa

Axpe Goikoa jatetxeak, bere txakolina dastatzeko urtero antolatutuen dauan Txakolinaren jaia martiaren 17an izango da, bazkaria, bazkalaurrea eta ostea antolatu dauz egun horretarako Lamindaoko jatetxeak. Herri-kirrolak eta jantzariak bazkalaurretik eta erromeriak ostean girotuko dabe eguna.

Eguerdiko ordu batean azkolariak, harri-jasotzaileak eta jantzariak egingo dabez erakustaldiak, bertaratutakoak txakolina eta pintxoak dastatu bitartean. Bazkaria be txakolinaren inguruan

plantsautu dago eta berrogeta hamar euroko prezioan, honek jan leitekez: Axpe Goikoa krema makailoagaz, txipiroi kipulatuak plantxan, artxo txuletak txingarretan eta postre lez, San Markos tarrea. Ostean erromeria egongo da Jokaldi taldeagaz. Izena emon gura dauanak Dimako jatetxera deitu behar dau.




Axpe Goikoa jatetxea.

ARATUSTEAK

Aratusteak irudietan

Aratusteetako lekuko diran hainbat argazki dakarguz orri honeetara irakurleakaz konpartiduteko. Era berean, hemen dagozanak eta beste batzuk ikusgaia izango dira BEGITUko webgunean.



ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es



GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan







SOKATIREA

Ruth Linaza, txapelketan txapeldun

Ruth Linaza lemoztarrak hamabost urte daroaz sokatiran. Kirol honetako pisu desbardinetan Euskal Herriko 16 Txapelketa eta 2 bider txapeldunorde izan da; lau urre, lau zidar eta hiru brontze be badaukaz parte hartu dauan sei Munduko Txapelketetan lortutakoak (Glasgow, Faenza, Cesenatico, Perth, Casterlbar eta Volendam).



Ruth Linaza.

Illart Gumuzio

Aurten, Gasteizko Badaiotz taldeagaz, 540 Kg-ko probako Euskal Herriko txapeldun izatea lortu dau. 500 Kg-an, barriz, txapeldun izateko aukerak daukiez; izan be, finalerako proba biren faltan aurretik doaz. Martian, oster,

Txinan jokatu dan Munduko Txapelketan parte hartuko dau Badaiotz taldeagaz eta 2014tik ofiziala dan Basque Country ordezkatzan be, talde zein selekzioen arteko lehia da eta.

Zelan hasi zinan sokatiran?

2003ko udan trontzan hasi nin-

tzan herriko Martina Iturriozegaz eta gaur egun nire sokatirako entrenadorea dan Ion Lapazaran be trontzan ibiltan zan. Gasteizen ikasten ibili nintzan ordurako eta Lapazaran Gasteizko Badaiotzen gertalari zan eta harek "probatzeko konbitea" luzatu eustan.

Zer aportetan deustu sokatirak?

Gauza asko baina, batez be, talde lanaren garrantzia eta lagunartea. Asko da sokatiran ibilteko egin behar diran sakrifizioak eta talde lanik ez balego... ez da ezer lortzean. Eta zer esanik be badaukie giro horretan lortu izan doguzan txapel eta munduko urrezko dominak... ez dago dirurik hori lortukeran sentiduten dana pa-getako.

Hamabost urte daroaz sokatiran. Zure ibilbideko ze momentugaz geldituten zara?

Ezingo neuke desbardindu bat. Danerik pasau izan dogu. Ona eta txarra. Baina urte latz baten ostean 2012an Perthen (Eskozia) urrezko domina lortzea... ahaztezina izan zan. Eta horren ostean Taiwanera sokatiran gaineko pelikula bat grabetan joateko aukerea izatea... sano-sano berezia izan zan.

540 Kg-ko Euskal Herriko Txapelketea irabazi dozue eta 500 Kg-koan aurretik zoazie

momentuz. Martian Txinan jokatu dan Munduko Txapelketan Basque Country-ren ordezkariak izango zarie. Ze espektatiba daukueze geldituten jatzuezan probetarako?

500 kiloko txapelketan aurretik goaz baina lana gogotik egin behar dogu oindino txapela etxera ekarteko. Aurkari gogorrak daukaguz etxean.

Txina beste kontu bat izango da. Sano gatxa eta gogorra izango da aurrean ibiltea. Taiwan eta Txinako andrazko taldeak, adibidez, profesionalak dira eta arerio bildurgarriak. Medailaren bat lortu ezker... pozik.

Emoizta itzelak daukuezean arren, sokatirea ez da kirol profesionalizaua. Zelan uzartuten dozue entrenametuak egunerokotasunagaz?

Zailtasun handiakaz eta etxeko eta lagunaren babesagaz. Ezingo litzateke hau danau posible izan eurak barik. Taldekide asko ama be badira eta hor oindino gatxagoa da dana uzartutea.

Eta bien bitartean inongo dirulaguntza barik eta gastu guztiak gure boltsikotik ordainduta.

Baina kirol honeri deustagun

miresmen eta maitasunak... horretan ekitera bultzatuten gaitu.

Betidanik maskulinizauta egon diran herri kirolean andrazkoen presentzia gero eta handiagoa da, bai Euskal Herri eta bai Arratia mailan be (zu sokatiran, Harriti giza-proba taldea, Irati Astondoa sega, aizkora eta trontzan...). Zer dala eta uste dozu dala? Ze etorkizun ikusten deustaz andrazkoen herri kirolari?

Urte honeetan guztietan eboluzino bat egon dala argi dago. Baina ez da nahikoa. Andrazkoen kirola zoritxarrez askoz gitxiago babesten eta erakusten da. Eta herri kirola askoz txarrago dago... Hamaikatxo bider entzun izan dogu "zetan zabiz horretan asto beharretan". Argi dago hori pentsakeraori ez bada aldatzen, urrun ez goazela baina horretan gabiz, egunero ekiten deustagun borroka hori ikusgarri egiten.

Herri kirola eskoletan sartzea izango leiteke honen giltza. Gizartean normaldu eta sano tekniko dala erakutsi. Hortik ekinda, beste kirol guztien besteko mailan egongo leiteke.

AZKOREA

Aitzol Atutxa finalerako sailkatu da

Alvaro Rabelli

Joan dan zezeilaren 3an, Abadiñoako azokan, Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketea "Eusko Label Saria" irabazi eban Aitzol

Atutxak Julen Alberdi, "Txikia IV."agaz batera. Bertan Dimako eta Azkoitiko azkoralariak 19 minutu eta 45 segundo behar izan ebezan lanak amaitzeko; Ugaitz Mugertza eta Joseba Otaegi arerioek, oster, 21 minutu eta 25 segundo. Garaipen horrerri esker, A taldeko azkolarari biak artez-arte sailkatu dira 2018ko txapelketako finalerako. Finala Azpeitian izango da, martiaren 4ean, Mikel Larrañaga eta Eneko Otañoren kontra.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

PELOTEA

Joko-Alaiko Erkiaga eta Olibaresek osatutako bikoteak irabazi dau Aretako Txapelketea



Anton Erkiaga eta Aitzol Olibares.

Erredakzioa

Urtailaren 26an, Laudioko Aretako III. Txapelketako finalak ikus-terko aukerea izan eben pelotazaleak. Txapelketea Herriaren Pilota Klubak eta Laudioko Udalak antolatzen dabe.

Kadete mailan, Joko-Alaiko Anton Erkiaga eta Aitzol Olibaresek osatutako bikotea Azpeitiako Aimar Egiguren eta Orozkoko Ioritz Arbaiza bikotearen kontra neurtu zan. Zeanuriko bikoteak nahiko errez irabazi eban partidua 22 eta 8ko emoitzeagaz.

FUTBOLA

Arratiak lidertza galdu dau

Erredakzioa

Arratia futbol taldeko andrazkoen taldeak lidertzea galdu eban zezeilaren 3an Tolosaren kontra 2 eta 1 galdu eta gero. Hauxe izan zan Igorreko taldeak jokatutako atzen partidua, hurrengo astegoienean ez zan ligarik egon eta. Arratia bigarren da oin 51 puntugaz Bizkerre liderrangandik puntu bira. Datorren partidua Leioako Emakumeak taldearen kontra jokatuko dabe Igorren zezeilaren 17an arrastiko 18:30ean.

Arratia B taldeari jagokonez oster, hilaren 3 eta 4ko astegoienean deskantsua euki ostean, 10ean jokatutako partiduan 9 eta 0 irabazi eban Ariz taldearen kontra. Datorren partiduan Leioako Emakumeak taldearen kontra

neurtuko dira etxetik kanpo hilaren 17an 15:30ean. Bigarren dago andrazkoen bigarren taldea lide-rragaz bardinduta 15 jardunaldiren ostean.

Gizonezkoak

Arratia A taldeak hilaren lehen hamabostaldian jokatutako partidu biak galdu ditu: zezeilaren 3an 0 eta 1 egin eban Urdulizen kontra; eta hilaren 10ean 1 eta 0 galdu eban Loiuren kontra. 20 jardunaldiren ostean Arratia zortzigarren postuan dago 29 puntugaz. Datorren partidua Derioren kontra jokatuko dau Urbietan 17an 16:00etan.

Arratia B-LemoaHarrobi derbia Arratiarentzat

Arratia Bk 1 eta 0 irabazi eban hilaren 10ean Igorreko Urbieta zelaian jokatutako derbia. 18 jardunaldiren ostean LemoaHarrobi hirugarren postuan dago 37 puntugaz eta Arratia B seigarren da 30 puntugaz. LemoaHarrobik Zalduaren kontra jokatuko dau datorren partidua Arlonagusian hilaren 17an 18:15ean. Arratia Bk oster, Betolatzaren kontra jokatuko dau hilaren 18an 19:00etan etxetik kanpo.



Andrazkoen Arratia A taldea.

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

ZINEKLUBA

The Bigamist filma Igorren**Erredakzioa**

Hiruhilabete honetako zineklube-ko atzen zitea martiaren 1ean izango da *The Bigamist* (*El bigamo*) filmaren emonaldiagaz. Filma iluntzeko 20:00etan proiektatuko da Lasarte Aretan.

The Bigamist pelikulan, Harry San Franciscan bizi da Eve andreagaz eta agente komertzial moduan askotan joan behar dau Los Angelesera. Andra-gizonak ume bat adoptetako tramiteak hasi dabez, baina Mr. Jordan-ek, adopzio-agentziako nagusiak, euren bizitza pribaduak ikertuko dituala esandakoan, gizona artegatuten hasiko da. Mr. Jordan laster konturatuko da senarrak bigarren andrea eta umetxo dituala Los Angelesen.

Ida Lupino da filmaren zuzendaria, Ingalaterran jaiotako aktore

eta zinema zuzendaria izan zan. Andrazkoen artean aitzindaria izan zan zuzendaritza lanetan eta, bere sasoiaren, Hollywoodeko andra zuzendari bakarra izan zan.



ERAKUSKETA

Sarajevo, gerra eta bakea erakusketea Arteen**Erredakzioa**

Gervasio Sanchez prensa-argazkilaria *Sarajevo, gerra eta bakea* erakusketea zezeilaren 28ra arte egongo da Arteko Kultur Etxeko Aretan Nagusian.

Egilearen eretxiz gerrearen ondorioak ez dira amaitzen paper bat sinatzen danean, ondorioak urte askoan zehar luzatzen dira. Erakusketeak batetik, Sarajevoko setioaren gerra garaiko (1992-1994) zuri-baltzeko argazkiak erakusten ditu; eta bestetik, inguru berberak hamabost urte geroago, bake garaian, zelan dagozan kolo-rezko hainbat argazkitan.

"Bosnia-Herzegovinako gerrea nire beharren eta bizitza personalaren zati ukazina da. Nire oroi-menak nekez ahazten dau gatazka ha. Etenbako bonbardaketak amesten jarraitzen dot, eta bertako biztanleen arpegietako bildurra ikusten dot oindino be, nahiz eta 2017ko aprilean mende laurden bete zan gatazka hasi zanetik.

Gerrea kontetea ezinezkoa dala ikasi neban han. Boligrafoa guztiz agortuta, adimena zehar zoroztuta edo errealidadea ezin hobetu zehaztuta be, ezin daiteke lortu irakurleak gatazka armatu baten egia zein dan ulertzea. Holangorik bizi ez dauanarentzat pentsaezina da eragindako izua" dino Sanchezek.

250.000 bosniar izan ziran erailak edo desagertutakoak, 16.000 adinbakoak ziran eta horreetako 1.601 ume izan ziran Sarajevon bakarrik hil ziranak. Herrialde guztian, gainera, aitarik edo amarik bako 25.000 adinbako baino gehiago dago.

SAN BALENDIN



Orain dala 60 urte hasi ziran Piedadeko artea neurtzen eta urtero errepikatzen dan tradizioa da.

Artea neurtuz ospatuko dabe San Balendin jaia Eleizondon (Zeanuri), zezeilaren 18an

60 urte beteko dauz artea neurtzearen tradizioak.

Jon Urutxurtu

Aurten be San Balendin jaia ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenaz ezetuten dan ermitearen inguruan. San Balendin egunaren osteko domekan, zezeilaren 18an. Gainera, aurten artea neurtzen daben 60. urtea izango da.

Jaia ospatzeko egitarau apala, baina, era berean, bitxia antolatuta dabe eleizondotarrek: 11:30ean mezea izango da Andra Mari parrokian; ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, datorren urtera arte bertan ixteko, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurketari ekingo deusie. Neurketaren akta sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, Ainar Ipiñazarrek, datorren urtekoari, Julen Llanoseri, agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasauko deusaz. Ostean, barauskarrian, urdaia, pamitxea eta ardaoa banatuko da bertara hurreratzen diranen artean. Ekintza horrek herriko txistularien eta bertsolarien kantuen artean egingo dira.

Egitarau honetan aitagarria da oin dala hirurogei urte eleizondotarrek hasi eben eta orain dala hamabi urte, aldi batean bertan behera itxita egon ostean, berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintzea: Piedadeko artearen neurketea.

Artearen neurketea

Ainar Ipiñazar, aurtengo

Gruoso a la altura de 1,50: 0,18.

Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta azken neurketea, Kandido Intxaurregak (+) egin eban 1999an; papertxo batean zera idatzi eban: Piedadeko artea. 99-2-14. *a 1,50 circunf.: 1,50.*

Aurrekoek hasitako ohitura ez dabe galtzean itxi gura eleizondotarrek, eta Ainar Ipiñazarrek dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. 2008an, Piedadeko artearen neurketea hasi zanetik 50 urte beteten ziran bez, ofizialtasuna emon gura izan geuntsan ohitura bitxi honeri, aurrerantzean be jarraipena izan dagian. Gainera, zugatzari neurri hartzeaz Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta (+) aurduratu izan da 2105era arte. Gregorio 2015ean hil egin zan eta 2016an Gregorioren lekukoa Igor Intxaurrega eleizondotarrak hartu eban. Aurrerantzean bera izango da neurtzailea".

Igaz arteari hartutako neurria honako hau izan zan: 189 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran, 2016an baino zentimetro 1 gehiago. Zein izango ete da aurtengo neurria?

Egitaraua San Balendin jaiak Zezeilak 18

11:30ean, mezea parrokian. Ostean San Balendinen irudia parrokiatik Piedadeko ermitara prozesinoan eroango da. Barauskarrian jango diran pamitxen bedeinkazioa.

12:30ean, Piedadeko artearen neurketea (ohitura honen 60. urtea beteko da aurten).

Datorren urteko maiordomoari agiri-liburua eta ermitako giltzak pasatzea.

12:45ean, barauskarria: urdaia, ardaoa eta pamitxea. Herriko txistulariek eta bertsolariak alaituko dabe giroa.

PIEADA EA ERMITEA: SAN BALENDINEN ETXEA ETA ELEIZONDOKO GUNE MONUMENTALAREN OSATZAILEETAKO BAT

Piedadea izenagaz ezetuten dan ermitan gordeten da San Balendinen irudia urtean zehar. Ermita hau Eleizondoko gune monumentalaren parte da. Gune horretan ondare interesgarria osatzen daben elementu honek biltzean dira:

* **Andra Mari parrokia:** 1702 eta 1751 urteen artean eregia, aurrerago egoan beste eleiza bat aprobetxatuz. 1994. eta 2002. urteen artean, zaharbarritua izan zan. Bizkaiko erretaularik ederrenetako ikusi daiteke bertan.

* **Piedade errendegi baseliza:** bere eleizpetik igaroten zan Erdi Aroko galtzadearen arrastoak ikusi daitezke oindino. Ermitearen aurrean arte eder bat dago, orain dala 60 urtetik eleizondotarrek San Balendin egunean neurtzen dabena.

* **Nestor Basterretxearen kurutzia:** Gorbeiaiko kurutzearen mendeurrena ospatzeko altxau zana.

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA • SINTASOLA • PAPEREA

Elizondo, 33 0 - Tº - 48140 IGORRE (Bizkaia)
TEL. 94 621 64 62 - 908 664 018

www.arte.com

Artea gitarra
-Laguntza pibondaketa
-Logopeda
-Fotografia
-Pikamentazioa
-Garaia erretzi
eta abar gehiago

KONTZERTUA

Talka taldea Arteako Kultur Etxean

Erredakzioa

Danetariko euskal abestiak bersionatzen dabezan eta entseguz entsegu euren erreperitorioa zabalduten dabilen talde akustikoa da Talka. Zezeilaren 23an, 20:30ean Arteako Kultur Etxeko Aretoan entzuteko eukerea egongo da.

Taldeak hainbat euskal talde edo bakarlariren kantuak joko ditu,



Pantxoa ta Peio, Rip, Su ta Gar, Ruper Ordorika, Mikel Laboa, Eskorbuto, Mikel Urdangarin, Carlos Puebla, La Polla, Anje Duhalde, Never Surrender, Kuraja, Skalarian, Mikel Laboa, Egorra ta Nitto.

IKASTAROA

Sexualitateak euskal literaturan ikastaroa Jabekuntza Eskoleak antolatuta

Erredakzioa

Ikastaroa zezeilaren 23 eta 24ean izango da, Zeanuriko Kultur Etxean, Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak eta Zeanuriko Udalak antolatuta. Barikuan 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara egingo da ikastaroa.

Ikastaroa Kultura birdefinitzen lan ildo barruan dago eta

dobakoa da. Iratxe Retolazak eroango dau aurrera euskeraz izango dan ikastaro hau. Literatura-kritikaria eta EHUKo irakaslea eta Emagin alkartekoa da Retolaza. "Literaturara hurbiltzeko bi begirada kurutzatuko dira irakurketa-saio honeetan: batetik, sexualidadearen eraikuntzearen eta errepresentazioaren inguruko hausnarrera bilduko dan begiradea; eta bestetik, begirada feministea. Bidekurutze horretan, literaturearen eta sexualidadearen inguruko diskursoen arteko gogotabideak zabaltzea izango da helburu nagusia" dinoe antolatzailak.

Izena zezeilaren 16ra arte emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitatean, 94 631 17 17 telefonoan edota www.arratia.net/eu-ES/Zerbitzuak/Berdintasuna webgunean. Era berean, Arratiako edozein Udaletan be emon daiteke izena.

ANTZERKIA

Areatzako I. Umorezko Antzerki Erakustaldia

AKKBk antolatzen dau Areatzako I. Umorezko Antzerki Erakustaldia eta Areatzako Udala eta Areatzako Bainuetxea ditu babesle lez.

Erredakzioa

Zezeilaren 17an, zapatua, 55 minutu irauten dauan Maite Guevararen gaztelaniazko *Soltarlo al aire* antzezanagaz hasiko da erakustaldia. *Soltarlo al aire* Martina Nuatina pailazoaren istorioa kontetan da, pailazoan geldialdi baten dago, estualdi baten, amildegiaren ertzean... Hor bilatuko dau behin eta barriro zelan burutu, zelan sinistu barriro bere buruan.

Umerez eta sentiberatasunez betetako lana da, andren ahal-duntzea erakusten dauana: gizarteak ipinitako klitxeen gainetik, Martina, andra pailazo lez, hauskorra eta indartsua da aldi berean, bildurtia eta sutua, erabagi bakoa eta ekintzailea, eta, batez be, zalantza betetako

mundu barri baten bera bakarrik konpontzeko kapaza dana.



LEHIAKETEA

Logo Lehiaketea Lemoan

Erredakzioa

Martiaren 21eko Arrazakeria eta Xenofobiaren Kontrako Eguna

dala-eta Lemoak beren beregiko logoa sortu gura dau. Horretarako "Lemoa, jatorri anitz herri bat" gaia oinarri hartuta logoa

aukeratzeko lehiaketea antolatu dau Lemoako Udalak. Lehiaketa honetarako eskuz edo ordenagailuz egindako lanak onartuko dira, eta zezeilaren 28a baino lehen udaletxean aurkeztu behar dira. Aukeratuko dan irudia martiaren 21etik aurrera erabiliko da.

DUNBA

Izaro Izquierdo Airakurri kanpainako finalista

Arratia Institutua BHI

Izaro Izquierdo igorretarra, Arratia Institutuko DBH 2. mailako ikaslea, Airakurri kanpainaren txapelketako hiru finalisten artean geratu da. Aprilean jakingo dogu hiruretatik nor izan dan irabazlea. Kanpaina honen bitartez, gazteen arteko irakurzaletasuna bultzatu gura izan dabe eta gure ikas-texetako hainbat ikaslek hartu dabe parte. Holan, irakurritako liburuen ohar kritikoak aurkeztu behar izan dabez. Gure gazteak, beraz, irakurza-leak be badira eta idazten animetan jakuz! Hona, Izaro Izquierdori egingo dako alkarizketea:

Azalduko deuskuzu zer aurkeztu dozun lehiaketan?

Gelan irakurri doguzan liburuen ohar kritikoak idatzi behar genduzan eta txapelketan aurkezteko aprobe-txau dogu. Nik bi aurkeztu dodaz: *Ezekiel* eta *Greta* eleberriena. Biak Jasone Osororenak.

Idazle honen lan gehiago irakurri dozu?

Jararen guztiak, Ezekielen biak, *Es-kularru beltzak*... Daukazan guztiak irakurri dodaz. Nerabeai zuzendutakoak dira danak. Nerabeen gaiak jorratzen dauz. *Greta* be irakurri dot, baia apur bat desbardina da, mutil batek maniki batez daukan hartu-

emonaren gainekoa da eta. Hau be asko gustatu jatan.

Nonkik jatorri irakurzaletasuna?

Beti irakurri izan dot. Aititik liburua idazten dauz eta erakutsi egiten deustaz. Helduentzako eleberriak idazten dauz.

Gaztelaniaz be irakurten dot. Oin *La catedral del mar* irakurten nabil, irakasle batek gomendatuta.

Zein da eskuartean euki dozun azken liburua?



Izaro Izquierdo.

Marta ispiluaren aurrean. Anorexia daukan neska baten gainekoa da. Bere buruaren eta hezurdurearen arteko alkarizketak dagoz eleberrian.

Zein eratako liburuak gustetan jatzuz gehien?

Danetarik irakurten dot, abentura, misterioa...

Noz hasi zara idazten?

Batez be oingo urtean. Eskolan ipuinen bat, baina batez be institutuan hasi naz idazten.

Zein lehiaketatan hartu dozu parte?

Hau da lehenengoa. Oin beste baterako lana prestatuten nabil: Bizkaitz Txiki IV (2017-2018) Haur eta Gazte Literatur Sari. "Munstro bat nire ispiluaren aurrean" da izenburua eta hasita dagoan istorio bat amaitzean datza. Gazte bat ispiluaren aurrean ipinten da eta munstro bihurtu dala ikusten dau. Fikziozko ipuina izan behar daua emoten dau, baia nik beste zeozer gura izan dot.



Zelan sentidu zara idazterakoan?

Asko gustau jat zelan geratu jatan eta aitak idea batzuk emon deustaz. Denpora askorik be ez dot emon idazteko. Lehenengo amiaera pentsau dot eta gero ideak gehituten joan naz. Nire adineko gazteen bizipenak lotuten ahalegindu naz. **Hemetik aurrera zer?** Idazteko gogoia daukat. Gaitasuna badaukadala konturatu naz eta gehiago idatzi gura dot. Ondino gaztea naz, baina gurako neuke istoriotxo bat hasikeratik amaierara idatzi.

AGENDEA

ZEZEILAK 15 ARTEA

Sarajevo, gerra eta bakea erakusketea. Gervasio Sanchezen eskutik Kultur Etxeko Areto Nagusian zezeilaren 28ra arte.

BEDIA

Hilaren 20ra arte, Udak antolatutako ikastaroen izena emoteko epea zabalik. *Soinketa hipopresiboa* astelehenera 18:00etatik 19:00etara martiaren 5etik maiatzaren 28ra; *Eskulanak* astelehenera 10:00etatik 12:00etara martiaren 6tik maiatzaren 29ra; *Patingea* zapatuetan 17:00etatik 18:00etara martiaren 3tik maiatzaren 26ra.

IGORRE

Mendi bete diru erakusketea Kultur Etxean hilaren 20ra arte. Ganzabalek antolatuta.

17:30ean, Bingoa Jubiladuen txokoa. Jubiladuen alkarteak antolatuta.

10:00etatik 11:00etara, martitzen eta eguenetan Igoibili. Jubiladuen alkarteak antolatuta.

20:00etan, Alvaro Torres Trio-ren jazz kontzertua Lasarte Aretoan.

Jaietako Kartel Lehiaketea. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira martiaren 2ra arte.

LEMOA

Lemoako Haur eta Gazteen XVI. Ipuin Lehiaketea. Udal liburategiak antolatuta, ipuinak zezeilaren 26tik martiaren 2ra bitartean bialdu ahal izango dira.

Arrazakeria eta Xenofobiaren Kontrako Egunerako, logo bat sortzeko Logo Lehiaketea. Parte hartzeako epea zabalik zezeilaren 28ra arte. Informazio gehiago www.lemoa.net helbidean.

ZEANURI

Hilaren 16ra arte, hilaren 23 eta 24ean izango dan *Sexualitateak euskal literatura* ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Izena Arratiako Udaletan edo Arratiako Udalen Mankomunitatean emon. Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea.

ZEBERIO

Udalak apirilaren 16tik 24ra antolatu dituan lehenengo mailako informatika ikastaroen izena emoteko epea zabalik dago.

Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabalek Nerbioi Ibaizabaleko enpresetan praktikak egiteko

beka programea 18 eta 25 urte bitarteko gazte langabetuak zuzenduta. Beka horreek eskatzeko epea hilaren 28an amaituko da.

ZEZEILAK 16 AREATZA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxean.

IGORRE

18:00etan, *Altsasukoak aske* berbaldia Kiñu Gaztetearen. Enaik eta Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta.

19:00etan, Lolita Chavezen *La represion de las defensoras de derechos humanos y la lucha contra las multinacionales en Guatemala* berbaldia (bidegrabaketea) Kultur Etxean. Noka Talde Feminista, Igitie eta OEE Arratiak antolatuta.

19:00etan, *Edadetuen bakardadea* berbaldia Caritaseko Pili Castroren eskutik. Kultur Etxean.

20:00etan, Arratia kantzubiladuenetik hasita.

LEMOA

22:30ean, Pelax eta Raust taldeen kontzertua Karabie Gaztetearen. Sarrera 3 euro.

ZEZEILAK 17 AREATZA

Baratze ekologikoa. Uparanen kokatuta dagoan Nanoa baserira bisita, ortu ekologikoa ezetutoko aukera egongo da. Gorbeiko Parkeak antolatuta.

Kontukantari 2, mendian ibiltari Igorreko Lasarte Aretoan hilaren 17an

La Enana Naranja taldeak, zezeilaren 17an arrastiko 18:00etan, *Kontukantari 2, mendian ibiltari* izeneko ikuskizuna eskeiniko dau Igorren. *Kontukantari* txotxongiloakaz egindako antzerki kontzertua da, "herriz herri, pozez bete gaituan proiektua izan da. Honeri jarraipena emoteko, *Kontukantari 2, mendian ibiltari* sortu dogu" dinoe egileak.

Kontukantari 2-k betiko euskal kantak eskeintzen ditu erritmo desbardineta eroanez; txikienak ikasi eta nagusienak ahaztu ez dagiezan.

Sinopsia

Nanu, Granu eta Kanuto ibilalditxo barri bat egiteko prestetan dabiz. "Arratsalde honetan, menditontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adararen puntan aurkituko dute loretxo bat eta... Oroimenean daukaguzan beste hamar abesti berrikusten dabez oingoan: *Haurtxo polita*, *Axuri beltza*, *Aldapeko*, *Ikusi mendizaleak*, *Loretxo bat*, *Baratze bat*, *Kolpekolpeka*, *Guk euskaraz*, *Furra furra* eta *Arratsalde honetan*.

20:00etan, Maite Guevararen *Soltarlo al aire* antzezlan udaletxean. AKKBK antolatuta.

DIMA

Aratusteak. Tabemetan kontzertuak. 19:30ean, Beteleit Jentilzubi Herriko Tabernan; 20:45ean, Madnetik Taberna Barrin; 22:00etan, Outsiders Duet Aramotzen; 23:15ean, Lion Heart Baltzola tabernan; 01:30ean, Trastorna2 Ugatxan.

IGORRE

22:00etan, zinea *Molly's Game* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

19:00etan, *Marokotik bizikletan* Aitor Intxaurragaren ikus-entzunezkoa Kultur Etxean.

ZEBERIO

10:00etan, fruta-arbolak inautseko ikastaroa. Plazan.

ZEZEILAK 18 DIMA

11:30etik 14:30era, Igitieko azokea. Txapa ikastaroa eta Jakoba Errekondoren liburuaren aurkezpena.

IGORRE

17:00etan, zinea *Oihaneko koadri*; 19:30ean, *Molly's Game* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, goizeko urtekere. Ganzabalek antolatuta.

10:00etan, urtekere bizikletan Arlonagusia kaleko saskibalo kanxatik. Tximindulari Elkarteak antolatuta.

ZEANURI

San Balentin jaiak. Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

ZEBERIO

19:30ean, zinea *Machuca*. Eskola zaharrean.

ZEZEILAK 19 BEDIA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxean.

IGORRE

09:40ean, autobusa hartu Zeanurira. Undurragako preesari bisita. Jubiladuen alkarteak antolatuta.

ZEZEILAK 20 DIMA

19:00etan, maiatzaren 26an Diman izango dan UEMA Eguna antolatze batarra udaletxean.

IGORRE

17:45etik 18:45era, korua Jubiladuen txokoa. Jubiladuen alkarteak antolatuta.

ZEZEILAK 21 DIMA

18:00etan, Guraso Elkarteak antolatuta, ume eta familientzako irakurle kluba Mireia Delgadoren eskutik liburategian. Ostean afari-merienda.

ZEANURI

18:00etan, Gorbeia Jubilatuen Elkartearen urteko Batzar Orokorra.

ZEZEILAK 22 BEDIA

18:00etan, Bediako buruhandiak sortzeko proiektuaren batzarra liburategian.

ZEZEILAK 23 AREATZA

19:00etan, *Elkarekin-Together* pelikulearen proiektua eta protagonistak berbaldia Udal Aretoan. Dagigun Elkarteak antolatuta.

ARTEA

20:30ean, Talka taldearen kontzertua Kultur Etxean.

IGORRE

17:00etatik 18:30era, eskulanak jubiladuen txokoa. Jubiladuen alkarteak antolatuta.

19:00etan, *Nerabeak, nora ezean?* *Eta gurasoak zelan?* berbaldia Lagungo Fundazionoko Jon Elorduiren eskutik. Kultur Etxean.

ZEANURI

17:00etatik 20:00etara, *Sexualitateak euskal literatura* ikastaroa Irtxe Retolazaren eskutik

Kultur Etxean. Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea.

20:30ean, Mikel Bermejo umorezko bakarriketalaria Txoko Sagaman.

ZEZEILAK 24 IGORRE

Ipar marxa ibilaldia. Aretoa-Katea-Urkuzu-Ubetxaga-Zubikoa-Industrialdea-Orobi-Arantzazu-Aretoa. Jubiladuen alkarteak antolatuta.

22:00etan, zinea *Tres anuncios en las afueras*.

ZEANURI

10:00etatik 13:00etara, *Sexualitateak euskal literatura* ikastaroa Irtxe Retolazaren eskutik. Kultur Etxean. Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea.

ZEZEILAK 25 IGORRE

17:00etan, zinea *Yo-Kai Watch: la película*; 19:30ean, *Tres anuncios en las afueras* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, urtekere bizikletan Arlonagusia kaleko saskibalo kanxatik. Tximindulari Elkarteak antolatuta.

ZEBERIO

08:00etan, urtekere plazatik. Arena-Montañó-Serantes-Luzero. Izena emoteko hilaren 22ra arte austarimendialdea@gmail.com, 665 735 054 telefonoan edo barikuetan 20:00etatik 21:00etara lokalean. Austari Mendi Taldeak antolatuta.

ZEZEILAK 26 IGORRE

Rocio Salazar-en *Eta ez banaiz berriz depilatzen?* ilustrazioen erakusketea Kultur Etxean.

ZEZEILAK 27 ARTEA

Eskolako umeak eskietan doaz.

DIMA

18:00etan, *Entzute aktiboa* hezkuntza tailerra.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, *Nola hitz egin drogen inguruan gure seme-alabekin?* berbaldia Kultur Etxean. Arratiako Guraso Eskola. Arratiako Udalen Mankomunitateko Prebenzino Zerbitzuak antolatuta.

ZEZEILAK 28 BEDIA

17:30-18:30, *Liburu-maleta ibiltari* liburategian.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, naruzko jesarlekuak, mantenimentu guztia egunean eroandakoa, garajeaparkautakoa eta atoi boleagaz. Telefonoa 688 602 516.

AUTOA SALGAI

Nissan Terrano II 2.7. Motorra egoera onean, remolkearentzako boleagaz, 3 ate eta 232.000 kilometro. 1999 urtekoa. Telefonoa 628 041 526.

BEDARRA SALGAI

Bedar siku bolak salgai. Interesdunak 628 041 526 telefonora deitu.

DANERIK

LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonora.

ETXEA ALOKAIRUAN

Igorren, 2. solairuan. Argitsua eta epela. Beheko Plazatik hur. Interesdunak deitu 644 955 345 telefonora.

ETXEA ALOKAIRUAN

Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz eta gasagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

JATETXEA ALOKAIRUAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden. Errendimentu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1. **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Kontukantari 2, mendian ibiltari antzezlanerako.**

Jabi Lamadrid (Dima)
Yolanda Martinez (Areatza)



2. **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Tres anuncios en las afueras filmarako.**

Kari Basozabal (Areatza)
Garikoitz Etxebarria (Igorre)




3. Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara. BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Akats. Indioa. 2.- Ostrukaren antzeko hegazti lasterkari. Jazoera, gertaera. 3.- Zer. Siku. 4.- Bozeroale. 5.- Bokala. Ordaindu barik. Azken letrea. 6.- Mantsotu. 7.- Haren. Ezetza. 8.- Kolore arreko insektu hegalaria. Garau, bihi. 9.- Musika notea. Kontau.

GOITIK BEHERA

1.- Umeltasuna daukana. Dirakien uraren inarrotea. 2.- Busti. Osotu. 3.- Birritan, hodi. Ohitu. 4.- Sufrea. Kemen. Bokala. 5.- Zahar. Arsenikoa. 6.- Garaitu. Oihala. 7.- Birritan, distiraren onomatopeia. Artez.



Topau arrastaka ibiltzen diran zazpi animalien izenak.



AKMIKO

Kailoren

ERREGE BATEN PARADOXA

Batzuek esaten dute ez nautela demokratikoki aukeratu, baina X. mendean Borboi guztien arbasoa, Hugo Capeto, Reimseko Apezpikuak jainkoaren izenean koroatu zuen, eta ni, haren ondorengo naizenez ba..
..Erregea naiz.

Pablo Haséi dedikatua

Baina Reimsetik beste hautagaia ez koroatzeko arrazoi bi aipatu zituzten: bat, burua galdu zuela nobleziakoa ez zen emakume batekin ezkondu zelako eta bi, ondorengotza ez dela nahikoa gizon bat errege izateko.

ezkerrak gaur egun Herrialde moderno eta demokratiko baten gaudela

umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, beheha
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnos.: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheha - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO


Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnos.: 94 673 61 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonos 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-por: urratia@euskalnet.net

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

